



216. ZENBAKIA. EURO BAT
2012ko ABENDUA

www.baleike.com

ANTXON GONZALEZ, BETIRAKO BIDEAN

Donejakue bidean
bizitako esperientzia
jasotzen duen liburu
zoragarria utzi digu
Antxon Gonzalezek



*Kalitatezko
produktuak*

*Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA*

Juanjo Larrañaga harategia



ZUMAIA

Basadi auzategia, 4. Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUZ

Salegi kalea, 14. Tel./Faxa: 943 890 215

BALEIKE 216

AZALA A. Gonzalez



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustín Zubimendi eta

Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

agustinzubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legia gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

10

baleike +

BARNE BIDAIA BATEN ARRASTO SAKONA

4

hitz-tantak
ESTI CUIEL: "ABENTURA
MODUAN HASI
NINTZEN ANTZERKIA
IKASTEN"

6

mahai-ingurua
ELKARLANA DA
EUSKARAZKO
HEDABIDEEN
ETORKIZUNA

21

erreportajea
KRISIAREN ERDIAN,
ARGI IZPIAK

27

baleike.com
EUSKARAZ BIZI NAHI
DUT

30

bertso xorta
JOKIN GIJARRO

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



“Abentura moduan hasi nintzen antzerkia ikasten”

TESTUA: AITOR MANTEROLA
ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Aktorea. Antzezlea. Artista. Makina bat pertsonaiaren barruan sartzen den horietako bat. Kameleoa, oraintxe honena eta hurrengoan bestearena egiten duena. Gaur orkestra gizona, bihar neska gaztea, akaso, eta etzi amona zaharra, agian. Eta aktore berrien irakasle ere bai.

Zenbat ikasle dituzu antzerki ikastaroan?

Hamabi-hamahiru lagun. Gazteenak hamabi urte dauzka eta helduenak berrogei inguru. Ez dut esango zenbat dauzkan helduenak, badaezpada ere [barrezka]. Denak batera aritzen gara, adinaren bereizketarik gabe.

Kopuru polita, ezta?

Handi samarra. Gauza batzuk egiten hasi ginenean konturatu nintzen asko garela, ezin genuen sartu ia-ia. Zaharretxean aritzen gara.

Esperientzia duzu ikastaroetan ematen. Kontatuko non eman dituzun aurrekoak?

Iruñean ikasle nintzenez, umei eman nien. Madrilen ere haurrak nituen ikasle, guraso elkarte bati ere eman nien. Gero, Zumaiara itzuli nintzenetik, Orion ematen ditut eskola batean, haurrekin hor ere, eta Zumaiakoa orain.

Nola erakusten da antzerkia?

[barreak] Hori zaila da azaltzen! Jolasak-eta erabiltzen ditut, batez ere. Dramatizazio jolasak dira. Hasieran, lotsa kentzea izaten da helburua,

eta, gero, eszenatikoa nola ibili behar den irakasten diet. Ez da kalean ibiltzea bezala, energia ez da bera. Bat-batekotasuna ere lantzen dugu, gai ezberdinak jarrita. Gai hori lantzen dugu, egiten dute ikasleek, eta gero azalpenak ematen dizkiet, zer hobetu eta horrelakoak. Ondo pasatzea da helburua. Umetan, beti ibili izan ginen jolasean “ni hau naiz, eta zu hura”, eta pixka bat hori berreskuratzea da asmoa, lotsa kentzea. Ematen du heldutasunean “formalak” izan behar dugula, eta ezin ditugula pertsonaiak asmatu eta antzeztu, umetan egiten genuen bezala.

Askotan esaten da denok daukagula gordeta barruan ume gineneko zerbait.

Hori ateratzea al da kontua?

Heldutasunean, ezkatutu egiten dugu ume hori, ez diogu uzten ateratzen, eta horretan laguntzeko ere bada ikastaroa.

Ikasleek esan al dizute antzezlanean bat prestatu nahi dutela?

Ari dira batzuk, nahi dute, eta beste batzuk beldur dira. Aurreko urteko ikastaroaren baitan, egin genituen eszena txiki

“Ematen du heldutanean formalak izan behar dugula”

batzuk Alondegian. Gustatu zitzaie, eta ea aurtengoa zerbait egiten dugun.

Ikasleak harritu egiten al dira onerako ikastaroa aurrrera doan heinean? Esan nahi dut, espero zutenaz gain beste zerbait aurkitzen ote duten-edo.

Orokorrean uste izaten dute obra bat eramango diedala eta hori prestatuko dugula. Baina nik ezberdin egiten dut: beraiei ateratzen zaie-na indartzera joaten naiz, sormena lantzeko. Gustura ibiltzen dira.

Antzezlea izateko berezko zerbait behar da ala landu egiten da?

Landu daiteke, baina berezkoa ere behar da. Ikasteko irekia izatea oso garrantzitsua da.

Ikasteko bidea zeuk egin zenuen. Nondik nora ibili

zinen?

Euskal Herrian ez da eskaintzen unibertsitateetan. Sevillan eta Madrilen bai, Gijonen ere bai. Iruñean, antzerki eskola bat dago, erdi publikoa, eta maila ona dauka. Han hasi nintzen, hiru urte izan ziren Nafarroako Antzerki Eskolan. Abentura moduan joan nintzen, eta zer den ikusteko balio izan zidan. Ikuspegi zabala eman ziguten, zenbat antzerki mota egin daitezkeen... Han bukatu eta Madrilerara joan nintzen, espezialitatea egitera joango banintz bezala. Gorputzaren bidez sortzen diren mugimenduekin lantzen da sormena, eta hori ikastera joan nintzen. Beste metodo bat dago, Stanislavskirena, horretan psikikoak zehazten du sormena; bestean ez, bestean gorputza da ardatza. Lecoqen metodoa da. Madrilen bi urteko ikastaroa izan zen.

Esan duzu abentura izan zela antzerkian murgiltzea. Berezko zerbait egin zenuen al zintuen?

Ez dakit azaltzen ondo zergatik aukeratu nuen. Antzerkiak ikusten nituen, eta zerbait sentitzen nuen. Eskolan ikasten joan ahala konturatu



ESTI CURIEL

Jaiotza urtea eta eguna: 1986ko otsailaren 21ean.

Jaioterrria: Zumaia.

Ikasketak: Arte Dramatikoa ikasi zuen Nafarroako Antzerki Eskolan, eta Madrilen ere bai Mar Navarro eta Andres Fernandez Eskolan, Lecoq teknikan espezializatuta.

Aktore bat: Konpromiso handian jarri nauzu. Gehiago begiraten diet gidoiari, egoerei.

Antzezlan bat: Ez dut ikusi, klasikoa da, 'Abeslari Burusoila' du izena, Eugene Ionescu da egilea. Askotan landu dut ikasketetan, eta gustatuko litzaidake ikustea.

nintzen benetan aktore lanetan murgildu nahi nuela.

Ikasketak bukatu eta lan bila. Aukerarik ba al dago?

Iruñean lan pixka bat egin nuen ikasle nintzela. Haurrentzako kale antzerkia egiten ibili nintzen, eta asko gozatu nuen. Iruñeko azkeneko urtean, karrera bukaerako lana egin behar da, umeentzat eta helduentzat. Kanpotik ekartzan dituzte zuzendari entzutetsuak. Guri Ekuadortik ekarri zizkiguten Aristide Vargas eta Charo Frances. Obra bat prestatu genuen beraiekin, eta oso emaitza ona izan zenez, eskolak eskubideak eman zizkigun guk antzezteko. Zumaian ere izan ginene. Orduan hasi nintzen konturatzan zenbat kostatzen den lan bat zirkituan sartzea... Hilean behin ateratzen bada antzezteko aukera, gustura! Ekuadorra joateko aukera ere izan genuen gero Vargas eta Francesekin. Beste lan bat sortu genuen han. Esperientzia ederra izan zen.

Lan kontuan ezer finkorik ez da, orduan. Momentuan momentukoa bizitzera behartuta al dago aktorea? Ia nahigabe sortzen dira

gauzak. Batekin hitz egiten duzue, eta batzuen artean zerbait sortzeko aukera ateratzen da.

Antzerki taldeetan sartzea zaila al da?

Talde horietan sartzea zaila da, baita telebistan edo zinemaren ere. Jakin egin behar da non dagoen atea irekita. Orduan, norberak sortzea da beste bide bat.

Antzerkiaren gain, zinemaren edo telebistan ibili al zara?

Zinemaren atzeko partean ibili naiz, beste lan batzuk egiten. Askok ikasi nuen. *Harrija* filmean aritu nintzen lan horretan, eta pare bat eszenatan ateratzeko aukera ere eman zidaten. *Urteberri on, amona* filmean, berriz, aldagelako lanetan jardun nuen, eta esperientzia ona izan zen.

Atzeko lan horiek egiteak irekitzen al ditu ateak?

Ez dakit. Nik denei esaten diet aktorea naizela [barrezka]. Oso positiboa naiz, sekula ez da jakiten, eta denerako prest nago.

Orain, ikastaroen gain, beste lanen bat bai?

Zarautzen ari naiz beste bi

“Bakarrizketa bat landuko nuke, ikusteko ni neu gai naizela”

neskarekin batera obra bat prestatzen. Hitzaren balioaren inguruan zerbait prestatzea pentsatu genuen. Eskatu genien Andoni Egañari, Uxue Alberdiri, Ainhoa Agirreazaldegiri eta Maialen Lujanbionari testu bat idazteko gai horren inguruan, baina ezin zuten beraien artean hitz egin; testu independenteak izan behar zuten. Antzerkirako nahi genuela esan genien. Oso testu onak egin dituzte, eta guk denak nahasi ditugu, ondo kostata. Orain hasi gara entseatzan, eta Iruñeko Euskara Elkartetik diru laguntza eman digute. Abenduan estreinatuko dugu, eta ea Zumaiara etortzen garen antzeztera. ‘Balitzen hioa’ izena du antzezlanak.

Beste lanen bat bai esku artean?

Umeentzat lan bat prestatzen ari gara Virginia Maffassanti

eta biok. Berak zirkuak gauzak menderatzen ditu, eta hortik goaz. Ez dut neure burua airean-eta ikusten, baina beno, edozertara moldatzeko prest nago.

Aktoreak pertsonaia asko jokatu behar ditu. Denak lantzeko prest dago ala pertsonaia batzuen egitea ezinezkoa zaio?

Pertsonaia batzuk errazago ateratzen zaizkizu, zuregandik gertuago daudelako. Egin, denak egin ahal izango dira, baina batzuk besteak baino errazago. Egiten duzuna egiten duzula, ezberdin lantzea da kontua, beti antzekoak eta modu berean egin ordez, horri ihes egitea erraza ez bada ere.

Zein izan da jokatzeko asko kostatu izan zaizun pertsonaia bat?

Nafarroako Antzerki Eskolan, Gabon batzuetan, lan bat egin behar genuen, eta nik orkestra gizonarena egin behar nuen. Proposatu nizkion zuzendariari beste aukera batzuk, ez nengoa elero. Gero, beste zerbait bilakatu zen pertsonaia. Lana estreinatua aurreko bidea zaila egin zitzaidan, baina gero, antzeztan, gozatu egin nuen.

Zein pertsonaia lantzea gustatuko litzazuke?

Irekita nago edozertara, gustura egoten naiz batekin edo bestearekin. Bakarrizketa bat landuko nuke, ikusteko ni neu gai naizela. Besteren baten testua izango litzateke.

Eta zuk zeuk idazten al dituzu lanak?

Ez naiz hasi, baina akaso, egunen batean hasiko naiz. Bestela, poesia batzuk eta idazten ditut tarteka. ■

ELKARLANA DA EUSKARAZKO HEDABIDEEN ETORKIZUNA

Teknologia berriek iraultza eragin dute komunikatzeko moduetan eta horrek krisia eragin du mundu osoko hedabideetan. Garai berrietara egokitu eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko estrategiak ari dira lantzen euskarazko hedabideak.

TESTUA: GORKA ZABALETZA



Euskararen Egunaren harira, Euskarazko Komunikazio Taldeko arduradun Iban Arregi, Tokikomeko lehendakari Mikel Irizar eta *Baleike*ko zuzendari Gorka Zabaleta bildu ziren mahai inguruan, gaiari buruz hausnartzeko. Hemen bildu ditugu plazaratu zituzten ideia nagusiak.

Hedabideak krisian



Iban Arregi: “Euskarazko hedabideok beti gaude krisi egoeran, baina gaur egun areagotu egin da. Paperezko produktak gero eta gutxiago saltzen dira eta joera hori izango da aurrerantzean ere. Ez dugu ahaztu behar euskarazko hedabideak helburu jakin batzuk lortzeko tresnak direla, nahiz eta batzuetan tresnak helburu bihurtzen ditugun. Euskararen normalizazioa da euskarazko hedabideen helburuetako eta bide horretan eraginkorrak eta erreferentziazkoak izateko neurriak hartu beharko ditugu”.

Gorka Zabaleta: “*Baleike*ko dagoeneko 18 urteko ibilbidea egin du. Bide emankorra izan da eta, pixkanaka, eskarmen-tuaren bidetik, hobetzen joan gara. Saiatzen gara kazetaritza profesionala egiten eta gure indarrak hor jarri ditugu, baina egitura oso ahula daukagu. Horrek eguneroko funtzionamenduari eta datozkigun erronkei erantzuteko ezintasuna eragiten digu. Txikiegiak gara. Ez daukagu gaitasunik hazteko, hobetzeko; irautea da gure eguneroko borroka. Horren aurrean, egitura sendoagoak lortzea da irtenbidea, eta hori ezin dugu

guk bakarrik egin. Komunikabideen arteko elkarlana ezinbestekoa da izango da”.

Mikel Irizar: “Oro har, tokiko hedabideak oso txikiak dira, kazetariak oso bakarka egiten dute lan, egitura ahulak dituzte atzean. Kazetaria talde lanera eramane eta bide horretatik kazetari multimediak sortzea da helburuetako bat. Aldizkari batek erredaktore eta erdi baldin baditu, egingo dute ahal dutena. Baina eskualdeko erredakzio batean zortzi edo hamar kazetari badaude, hori lana beste modu batera antolatzen has daitezke, elkar elikatzen, euskarri guztietan elkar osatzen. Elkartze horrek ez du esan nahi inondik ere herritik urruntzea; alderantziz, lortu nahi dena da elkartze horretatik indartu eta sustraiak luzatzea, hiperlokaltasunaren norabidean. Eta hori nahi ditugu herritarrak. Herritarrak ez daude soilik sostengua emateko. Herritarrak nahi ditugu berriemaile”.

Elkartze estrategiak

Mikel Irizar: “Zorioneko krisia esaten dut nik askotan. Krisiak umil egin gaitu eta umiltasunean lankidetzaz errazago da. Krisiak akuilu lana egin du, larritasuna eragin digu, baina, aldi berean, oso ondo erreakzionatzen ari gara, eta lankidetzarako joera hartu dugu. Bide horretan ikaragarri indartsu izan gaitzake. Lankidetzaz hori ahalbidetzen duen legamia euskara da. Ziurrenik, euskarari esker aterako gara egoera honetatik indartuta.

Momentu honetan inork ez daki zer datorren. Formularekin asmatzen badugu, asmatzen badugu non egon daitekeen gure ekarpena eta gure errotzea, beste inor baino hobeto egon gaitzake krisi egoera honi aurre egiteko. Sarri aipatzen dugu euskarazko herri ekimenezko hedabideetan 600 langile inguru gaudela. Horri erantsiko bagenio EITB-ren euskarazko adarra, ia mila lagunera iritsiko ginatke. Mila

lagun Euskal Herrian informazioa lantzen, beste inork jarri ez dezakeen indarra da. Vocento taldea ere ez da gu baino handiagoa, baldin eta guk jartzen ditugun mila lagun horiek elkarlanean, egiturak eta edukiak konpartitzen. Hori lortuko bagenu, nagusi izateko baldintzetan geundeke. Aldarrikatzen duguna da euskal komunitatearen ahots propioa lantzea eta ahots propio hori euskaraz izatea. Horrek emango dio gure komunitateari sendotasuna eta gure egitekoari zentza”.

Iban Arregi: “Esperientzi pilotu bat ari gara martxan jartzen Tolosaldean, bertako hedabideekin. Proiektua da gune bakar batetik kudeatzea eskualdean dauden tokiko hedabide guztiak: Internet, telebista, irratia, paperezko produktuak... Uste dut pixkanaka hori izango dela joera beste eskualdetan. Horrek ez du esan nahi eredu berbera erabili behar denik eskualde guztietan. Bakoitzak bere izaera eta errealtatea dauka, baina joera elkarlana izango da, ondo antolatua eta egituratua. Urola Kostan ere bide horretatik jo beharko litzateke”.

Gorka Zabaleta: “*Baleiken* ez gaude hedabideak bizi duten zurrumbilotik kanpo. Inguruko herrietara begiratu eta ikusi dugu denok ditugula antzeko kezak. Bilerak egin ditugu eta ohartu ginen etorkizuna elkarlanean dagoela. Gaur egun lanak bikoizten ari gara eta hori ez da posible. Baliabideak ez dauzkagu sobran eta ahalik eta eraginkorren izan behar dugu. Urola kostan elkarlan hori nola egituratu ari gara orain eztabaidatzen. Hurrengo urterako erronka da proiektu bateratu bat adostea”.

Etorkizuna



Mikel Irizar: “Lehenengo aldiz, euskarazko hedabideen etxearen plano osoa elkarrekin diseina dezakegu. Orain arte bakoitza bere txabolan ibili gara. Batzuek sekulako indarra emango liguke. Etxe hori bi solairu ikusten dizkiot nik. Beheko solairua da tokiko komunikabideena. Hor jadanik urratsak egiten ari gara ondo antolatzeko, egitura sendoak sortzeko. Horrekin batera, plataforma digital komun bat sortzen ari gara, horren gainean

eskualde bakoitzak bere tresna digitala izan dezan. Eskualdekako sare bat sortuko genuke, denak motor zentral bati lotuta. Edukiak nahi adina partekatzeak aukera emango du. Imajinatu horrek zer aukera ematen dituen. Hortik sekulako aberastasuna sor daiteke, goiko solairuan dauden maila nazionalako hedabideentzat oso baliagarria. Beraz, beheko solairuan egongo ginateke tokiko hedabideak, ondo antolatua eta informazioa zurrupatzen sortzen den lekutik, herritar asko kolaboratzen eta lanean. Goiko solairuan egongo lira-

teke hedabide nazionalak, haiek ere gaur baino multimedia-goak. Eta bi solairuen artean informazioa behetik gora eta goitik behera erraz eramango duten igogailu mordoa. Etxe horretan mila langile jarriz gero lanean ondo antolatuta, uste dut komunitatearentzat sekulako tresna dela. Ametsa da, baina posible da eta saiatuko gara”.

Iban Arregi: “Aldaketa handiekin ikusten dut etorkizuna. Antolaketa aldetik eta produktu aldetik. Askotan, zain egoten gara lehen pausoa norik egingo gainontzeko guztiok atzetik joateko. Uste dut ausart jokatzeko garaiak direla. Guk ezin dugu besteen zain egon. Aurretik joan beharra daukagu. Asmatuko dugu edo ez, baina arriskatu beharra daukagu. Hemendik bost urtera, nire ustez, paperezko produktuak oraindik ezinbestekoak izango dira. Eta ez soilik diru sarrerengatik. Erreferentzialtasunagatik. Orain, paper horrek zer eskaini behar duen, hor asmatu behar da. Internetekin osagarri nola egin, eduki berezituak nola eskaini. Malguak izan behar dugu egiturei eta produktuei dagokienez. Euskarrietan oinarritutako eredu aipatu behar da. Edukien sortzaileak izango gara eta eduki horiek euskarri egokien bitartez zabalduko ditugu. Teknologia daraman abailarekin auskalo hemendik bost urtera zer euskarri berri izango dugun. Baina gure lana beti izango da edukiak ahalik eta txukunen zabaltzea”.

Gorka Zabaleta: “Kazetari-tza eredu datorren aldaketa izugarria da. Kazetariok orain arte informazioaren monopolioa eduki dugu. Geuk izan dugu atearren giltza. Informazioa gure bitartez zabalduta zaio gizarteari. Hori hankaz gora jarri da teknologia berrien eskutik, sare sozialekin, blogekin... Edonork dauka informazioa sortu eta zabaltzeko aukera. Kazetariok egin behar duguna da gure pulpitutik jaitsi eta gure komunitateko ki-



deekin elkarriketan parte hartu, maila berean. Noski, kazetariak bere zereginak izango ditu profesionala izango bada (gai garrantzitsuak sakon landu, iturri egokienak bilatu...), baina sare sozialetan dagoen jarioan parte hartzen dugu edo akabo. Jatetxe batekin alderatuko bagenu, izango litzateke jatera datorrenari behingoz sukaldeko atea irekitzea. Orain arte geuk eskaini ditugu menu itxiak, baina hori jadanik ez da nahikoa belaunaldi berrientzat. Sukalderaino sartu eta jango dutena sortzen parte hartu nahi dute. Batzuek mehatxutzat hartuko dute eredu aldaketa; niri aukera bikaina iruditzen zait. Teknologia ekarri digu, historian lehen aldiz, benetako komunikazioa jorrazteko aukera. Orain arte norabide bakarrekoa izan da, kazetariok sortu eta komunitateak kontsumitu. Hemendik aurrera komunikazioa norabide askotarikoa izango da”. ■



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20



L I B R R U D E N D A

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569



Astelehenerdik igandera 08:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.
Etxera banaketa doan

Alai auzategia, 3 • 943 118 394

ALBERDI

dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261



Paladar dulce, corazón sano

Aho bete gogo, bilhotz bete osasun



ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anaetxeokozapatak@telefonica.net



D'Ana

ILEA PAINDEGIA

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 408

Ardantzabide

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5
Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631


ARGISUN

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA

Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943 561 501
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI

Baltasar Etxabe 2/9
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritz

Ribaitario Itaki Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310
www.basadiclinicvet.com

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean bita
Lamiakelarsko: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzua

BASUSTA ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073



Braky's

Okindegia Katedegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

BALEIKERen 2013ko EGUTEGIA OPARI!

Egin zaitez Baleikeko bazkide eta jaso ezazu 2013ko mahaiko egutegia.

- ✓ Distira Argazki Elkartearen argazkiak
- ✓ Herriko agenda
- ✓ Itsasaldien taula (ordua egokituta)
- ✓ Ilargia eta eguzkia



	Itsasgora	Itsasbatera	Eguzkia
1	06:36 3:59 / 22:07 3:72	23:14 0:76 / 10:38 1:36	7:05 21:02
2	06:40 3:59 / 22:07 3:57	24:20 0:88 / 10:40 1:28	7:09 21:01
3	06:44 3:57 / 22:07 3:56	25:26 0:99 / 10:42 1:26	6:59 21:02
4	06:48 3:54 / 22:07 3:55	26:32 1:12 / 10:42 1:23	6:57 21:03
5	06:52 3:53 / 22:07 3:53	27:38 1:26 / 10:42 1:21	6:54 21:04
6	06:56 3:50 / 22:07 3:52	28:44 1:41 / 10:41 1:18	6:53 21:05
7	07:00 3:48 / 22:07 3:50	29:50 1:57 / 10:39 1:15	6:53 21:06
8	07:04 3:46 / 22:07 3:48	30:56 2:14 / 10:36 1:12	6:53 21:07
9	07:08 3:43 / 22:07 3:47	32:02 2:32 / 10:32 1:08	6:51 21:09
10	07:12 3:41 / 22:07 3:45	33:08 2:51 / 10:27 1:04	6:50 21:10
11	07:16 3:39 / 22:07 3:43	34:14 3:11 / 10:21 1:00	6:49 21:11
12	07:20 3:37 / 22:07 3:41	35:20 3:32 / 10:14 0:95	6:47 21:12
13	07:24 3:35 / 22:07 3:39	36:26 3:54 / 10:06 0:89	6:46 21:13
14	07:28 3:33 / 22:07 3:37	37:32 4:17 / 9:57 0:82	6:45 21:14
15	07:32 3:31 / 22:07 3:35	38:38 4:41 / 9:47 0:75	6:44 21:15
16	07:36 3:29 / 22:07 3:33	39:44 5:06 / 9:36 0:67	6:43 21:16
17	07:40 3:27 / 22:07 3:31	40:50 5:32 / 9:24 0:59	6:43 21:17
18	07:44 3:25 / 22:07 3:29	41:56 5:59 / 9:11 0:50	6:41 21:18
19	07:48 3:23 / 22:07 3:27	43:02 6:27 / 8:57 0:41	6:40 21:19
20	07:52 3:21 / 22:07 3:25	44:08 6:56 / 8:42 0:32	6:39 21:20
21	07:56 3:19 / 22:07 3:23	45:14 7:26 / 8:26 0:23	6:38 21:21
22	08:00 3:17 / 22:07 3:21	46:20 7:57 / 8:10 0:14	6:37 21:22
23	08:04 3:15 / 22:07 3:19	47:26 8:29 / 7:53 0:05	6:37 21:23
24	08:08 3:13 / 22:07 3:17	48:32 9:02 / 7:35 0:00	6:36 21:24
25	08:12 3:11 / 22:07 3:15	49:38 9:76 / 7:16 0:00	6:36 21:25
26	08:16 3:09 / 22:07 3:13	50:44 9:51 / 6:56 0:00	6:34 21:27
27	08:20 3:07 / 22:07 3:11	51:50 1:07 / 6:35 0:00	6:34 21:28
28	08:24 3:05 / 22:07 3:09	52:56 1:24 / 6:14 0:00	6:33 21:29
29	08:28 3:03 / 22:07 3:07	54:02 1:42 / 5:53 0:00	6:33 21:30
30	08:32 3:01 / 22:07 3:05	55:08 2:01 / 5:32 0:00	6:32 21:31
31	08:36 3:00 / 22:07 3:03	56:14 2:21 / 5:11 0:00	6:32 21:32





BARNE BIDAIA BATEN ARRASTO SAKONA

Donejakue bidean bizitako esperientziak liburu batean kontatzea zen Antxon Gonzalezen ametsa. Heriotzara eraman duen gaixotasunarekin borrokan, *El gran caminante* utzi digu idatzita. Bizitzari buruzko ikasgai zoragarria.

TESTUA: GORKA ZABALETA

ARGAZKIAK: ANTXON GONZALEZEN ARTXIBOA



Donejakue bideak maite zituen Antxon Gonzalez Gabarainek (Zumaia, 1971-2012). 2002an egin zuen bidea lehen aldiz, Orreagatik abiatuta. Lehen esperientzia haren ondotik, bidea pasio bihurtu zitzaion. Aurrena, *Bolix* bizikletaren laguntzarekin, Sevillatik, Zamoratik edota kostaldetik abiatuta; ondoren, botak jantzita, Aragoi eta Frantzia zehar; edota, negu betean, Ponferradatik Santiagoraino.

Nahikoa eskarmentu pilatuta, bere bide propioa egitea erabaki zuen. 2008ko martxoaren 14an etxeko ataritik abiatu zenean ezin imajina zezakeen bidean zain zituen bizipenek utziko zioten arrasto sakona. Bidaia hura abentura hutsa baino gehiago izan zen Antxonentzat: barne bidaia bere iturburuetara. 25 egunen buruan Santiagora iritsi zenerako erabakita zeukan: etxera bueltatu bezain pronto liburua idatziko zuen.

Eguneroko bizimoduak, ordea, ez zion aukera handirik eman. Goizeko zazpitan jaikitzen zen lanera joateko eta arratsaldeko zazpitan iritsi etxera; eta etxean, bi alaba txiki zituen zain... “Nola pentsatzen duk liburua idaztea?” esaten zion Teresa Azkuek senarrari. Liburuari ezin heldu, bere blogean (<http://bolix.foroperegrino.es/>) hasi zen bi-

daiatik ekarri zuen bizipen emaria tantaka aletzen: gogoe-tak, pasadizoak, bidean izandako solasaldiak... “Galizian Donejakue bideari buruz egiten den ipuin lehiaketa bat ere irabazi zuen”, gogoratu du Teresak, “*Pallozas en la niebla* lanarekin”. Artean, ordea, oso gutxik zuten Antxonon barne mundutik ateratzen ziren txinparta liluragarrien berri.

Gaixotasuna

2010eko otsail aldera izan zen. Zerbait ezohikoa gertatzen zitzaion ahoan. Mingaina zeharo motelduta zeukan eta ezin zituen hitzak ondo ahoskatu. “Galdetu nion ea zer gertatzen zitzaion, eta erantzun zidan dentistarenean zebilela azkenaldian eta agian nerbioren bat-edo ukitu ziotela. Pasako zitziola”. Baina ez zitzaion joaten. “Estresa izango zela esan ziguten gero, gauez matraileko giharrak behartzen zituela eta horregatik izango zela. Pasako zitziola”. Hiruzpalau hilabeteren buruan, mingainak motelduta segitzen zuen. Larritzen hasita, medikutan serioago begiratzen hasi ziren. “Neurologoarengana joan eta hark baztertu egin zuen estresaren eragina izan zitekeenik. Orduan hasi nintzen neu ere larritzen. Aita etorri zitzaidan gogora. Probak



◀ BAKARRIK

Bidaian aurkitzen zituen lagunekin solasean egitea atsegin zuen arren, nahiago izaten zuen bidean bakarrik joan.

▼ LIBURUAREN AURKEZPENA

Autoedizioan argitaratu dute Antxonon liburua. Hasiera batean, 400 ale inguru inprimatu dituzte, eta 15 euroan jarriko dituzte salgai. Zumaian Turismo bulegoan eskuratu ahal izango da.

egin zizkioten, eta, hasieran, Alboko Esklerosi Amiotrofikoa izan zitekeenik baztertu egin zuten. Baina Antxon ez zen lasai gelditu. Uda oso txarra pasa genuen. Antxonek hitzak behin eta berriz errepikatzen zituen, ondo ahoskatu nahian; alabek ez zioten ulertzen eta horrek bere onetik ateratzen zuen...”.

Urrian, sintomak areagotzen hasi ziren. Ahoko ezinez gain, zerbait arraroa sumatzen hasi zen hatz batean. Ez zion behar bezala erantzuten; eta dar-dar modukoak ere hasi zitzaizkion besoan. “Egun batean ordenagailutik inprimatutako orri batekin etorri zitzaidan. *Irakurri hau*, esan zidan. Alboko Esklerosi Amiotrofikoren sintomak ziren. Antxonek susmoa zuen aspalditik eta Interneten aurkitu zuen informazioa. Nik ezin nuen sinetsi. Zer loteria klase egokitu zitzaigun?”. Esklerosiak jota hil zen Teresaren aita ere.

Medikutara joan eta hamaika proba egin zizkioten berriro. Teresak gogoan du neurologoari egindako bisita. “Esklerosia duen beldurrez dago’, esan nion medikuari. ‘Horren beldur naiz neu ere’, erantzun zuen. Sekulako kolpea izan zen; baina, aldi berean, jakiteak mesede egin zion Antxon. Lasaitu egin zen. Zer gertatzen ari zitzaion jakiteko premia zeukan”.

Liburua

2011ko urtarrilean baieztatu zioten gaixotasuna. Teresaren aitaren erreferentziarekin, bazekien zer zetorkion: nerbio sistemako zelulak hil egiten dira eta gorputzaren degeneratze prozesua eragiten du, heriotzaraino. Alboko Esklerosi Amiotrofikoak ez dauka sendagairik.

“Hasieran, lanera joaten jarraitu zuen. Delinatzaila zen Biele-n eta lana oso gustukoa zuen. Egunero kotxea hartzen zuen Urrestillara (Azpeitia) joateko, baina eskua huts egiten hasi zitzaion. Lantokian ere egoera ez zen eroso. Lanean baja eskatzea pentsatu zuela esan zidanean, nik hasieran ez nuen garbi ikusten. Amore ematea zen hura. Etxezuloan sartu eta erabat hondoratuko zen beldur nintzen. Horrela erantzun zidan:

–Nik ez daukat lan egiteari uzteko asmorik. Lana aldatuko dut: idazle izango naiz.”

Liburua idatzi beharra zeukan. Patuak ezarritako zorigaitzoko amaierari aurre hartu behar zion, nola edo hala; Donejakue bideak utzitako arrasto sakona paperera ekarri, irauin zezan. Inauterien bueltan, lanean baja eskatu eta liburuari heldu zion, buru-belarri. “Egun osoa ordenagailuan, jo eta su. Hasieran, dokumentazio lan handia egin zuen, asko irakurri zuen, ideiak ordenatzen denbora eman zuen. Izan ere, 2008an bidaia egin zue-nean, Antxonek ez zuen koadernorik eraman oharrak hartzeko.



ARANVAITZ RUBIO APREA

Bidea amaitzean okurritu zitzaion liburuaren ideia. Ideia horiek guztiak txukuntzen, materiala prestatzen eman zituen lehen hilabeteak”.

Baina liburuarekin batera, Antxonek bazuen beste amets bat betetzeko. “Noiz-bait bidea biok elkarrekin egitea zen bere ilusioetako bat. Gaixotasuna baieztatu zigutenean, planak egiten hasi ginen. Bagenekien ez genuela denbora asko. Pentsatu genuen maiatz-ekain aldera egitea. Zati bat, bederen”.

Baina Antxon estutzen hasi zen. “Ordurako nola egongo ote zen, gai izango ote zen, galdetzen zion bere buruari. Otsaila zen artean; paseatzera irten nintzen batean, mezu bat idatzi zidan mugikorrera: *bihar Santiagorantz noa*. Zur eta lur utzi ninduen. Behar zuela, Ponferradatik Santiagorako tartea berriro egiteko premia zuela, libururako... Saiatu nintzen konbentzitzen, gutxienez egun batzuk emateko etxea, lana eta umeak antolatze-ko... Bere amak eta biok esan genion beldurra ematen zigula, gaixotasunarekin, bakarrik... Ordurako sintomak nabarmenak ziren. Berak, berriz, ez zuela beldurrik”. Hurrengo egunean han joan zen, bakarrik.

“Inprimatutako orri batekin etorri zitzaidan. Irakurri hau, esan zidan. Esklerosiaren sintomak ziren”

Irratiko deia

“Antxon, berez, oso gaixo txarra zen, ezer gutxiarekin petraltzen den horietakoa. Baina, begira, handiena tokatu eta txundituta utzi gaitu. Nola egin zion aurre. Okerrera, hasieratik, komunikatzeko ezina izan zen. Hori oso gogorra zen beretzat.

Antxon hondoa jota ibili zen bolada batean eta ezusteko bat eman nahi nion. Oso gustuko zuen kazetari bati idatzi nion, Antxonon historia kontatuz eta ea lerro batzuk idatziko ote zizkion, animatzeko. Egunak pasa ziren eta Antxonek ez zidanez ezer aipatu; pentsatu nuen ez zuela ezer jaso. Baina, hara, egun batean bere postan ikusi nuen jaso zuela kazetari haren mezua... ‘Honek ez al zidak ezer esan behar!’, pentsatu nuen. Bada, handik egun batzuetara, deia jaso nuen kazetari hark lan egiten zuen irratik. Niretzat mezu bat zutela... Jokoz kanpo harrrapatu ninduten. Kontua da Antxonek tratua egin zuela kazetariarekin. Antxonek lerro batzuk idatzi zizkidan eta kazetariari eskatu zion, mesedez, irratitik deitu eta berak irakurtzeko, aspaldian ez zidala ezusteko onik eman eta merezi nuela. Hunkigarria izan zen”.

Zerk sortu du krisia? Lehentasuna etekin ekonomikoak metatzeari ematea, ez pertsonen bizitzari eta zainketari.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Foru Plana

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurigrunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



EKAIN

SAGARDO EKOLOGIKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045



ERROTA
ORIL-OKINDEGIA
SANTILXO AUZOAN, 32
20750 ZUMAILA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errota@errota-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskatu sarrerik
konpromisorik gabe.
DOAN



Beheko plaza

tel./faxa: 943 143 395



PAPER diseinu grafikoak

Roberto Gutierrez

696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

Galdona



burdindegia

Mendara marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia

tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



kafetegia

Txomin Agirre kaia

Tel. 943862181



GOIKO TABERNA

Erribera, 9

tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Goldan Gate

Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

ELUR EKAITZAREN ERDIAN

Paisaiak deskribatzeko eta gertaerak girotzeko aparteko abilezia erakusten du Antxonek bere liburuan. Irakurlea kontakizunean erabat murgiltzea lortzen du. Pasarte hau adibide: elur ekaitzak mendian harrapatu du.

“La ventisca carga con saña apocalíptica. Avasallándome desde un nivel superior, se precipita sobre mí y comienza a acribillarme. Los copos de nieve son impulsados por el azote de un viento huracanado que agita mi capa como un estandarte y me impide el avance. Impactan en mi pecho, en mis manos, en las botas, en todo mi cuerpo, colándose en mi anatomía por los recovecos y helándome hasta el alma. Me veo forzado a inclinarme hacia adelante con la vista pegada al piso, a tirar apretando los dientes mientras la nube me ametralla a discreción motas blancas heladoras, que caen prácticamente horizontales. Pretende desplomarse en mi cabeza. La nieve en el suelo se espesa y cubre el camino. Me llega, apagado, el crujido de mis lentas y esforzadas, agónicas, pisadas. Procuero dominar el pánico que me embarga, pero el cielo se oscurece como un anochecer adelantado. Es una tiniebla malévolá, una sombra perversa

proyectada en el gris oscuro de un paisaje que se devora a sí mismo, que no cesa en su descarga blanca y enceguedora. No veo posibilidad de guarecerme. En realidad, no veo nada. Intento desviarme, detectar la presencia de algún parapeto natural. Mas nada es visible ni reconocible en tan funesta tesitura. Sólo cabe seguir dando pasos desesperados. Resistir mientras me vuelvo una figura blanca andante. Ando, ando y ando. Metro a metro. A ciegas. Contra viento y marea, sin rumbo, a merced de los embates del vendaval. Caen cientos de pasos. Lentos y esforzados. El tiempo discurre ralentizado dentro del hervidero en que se ha convertido mi mente. Los minutos son horas, las horas, días, los días, años. Siento que me desfondo. La nevada redobla la arremetida y me ciega. No puedo abrir los ojos. La nieve se me acumula en los párpados. Mi coraje va deteriorándose, minándose en esta situación límite. Sin fuerzas ni margen para reaccionar, detengo mis pasos. No puedo ver. Temo llegar a desaparecer engullido por la vorágine, y antes de abandonarme a mi suerte, ruego la aparición milagrosa de un último recurso al que asirme y me salve”.

Ponferradatik Santiagorako tartea egin zuen, oinez. Hamar egun behar izan zituen. “Zorionez, Malagako bikote bat ezagutu zuen eta elkarrekin egin zuten bidea. Manolo eta María. Manolok oinazpiak oso gaizki zituen, babaz josita, eta Antxonek sendatzen lagundu zion. Bikotea liluratuta gelditu zen Antxonekin. Hasieratik esan zien zer gaixotasun zuen. Haiek ez zuten gaixotasunaren berri; jakin-minez, Interneten begiratu eta ezin zuten sinetsi. Mariak esaten omen zion Manolori: ‘Mutil hau hiltzen ari da eta zure oinez ari da kezkatzen’”.

Teresak eta Antxonek 2011ko ekainean egin zuten bidea elkarrekin. “Lau etapa egin genituen, Orreagatik Lizarrara. Ehun kilometro inguru. Esperientzia ederra izan zen. Arantza kentzeko modua izan zen”.

Begiekin idazten

Dokumentazio lanak eginganda eta ideiak ondo antolatuta, 2011ko azken txanpan ekin zion Antxonek liburua serio idazteari. “Atal bat asteko, gutxi gorabehera”. Ordurako gaitza eskueta-

Eskuen gaineko kontrola galdu zuenean begiekin idaztea ahalbidetzen duen aparailu bat erabili zuen liburuarekin jarraitzeko

tik besoetara ere zabaldu zitzaion, eta eguneroko bizimodua zaildu. Denboraren kontrako borroka zen hura. Ezina gailentzen zitzaion gorputzari, gupidarik gabe, lan xumeenak ezinezko bihurtzeraino: ezin etxeko atea zabaldu, ezin alkandoraren botoiak lotu, ezin esnearen ontzia zabaldu, ezin... Gabonak aldera, gaitzak aurrera egin zuen nabarmen. “Hankak nekatzen hasi zitzaizkion, eta jatekoa irensteko arazoak zituen. Eskuen gaineko kontrola oso galduta zeukan ordurako, eta ezin zuen idazten jarraitu”.

Teklatu handiago bat jarri zioten, baina ez zen soluzioa. Orduan izan zuten begiekin idaztea ahalbidetzen duen aparailu baten berri (iriscom). “Ordenagailura konektatzen den plaka bat da. Begiekin aukeratutako hizkia detektatzen du. Hasieran arazoak ematen zizkion, neurria hartu arte, baina segituan ikasi zuen”. Begiekin idatzi zuen handik aurrera, liburuaren erdia baino gehiago.

Denbora agortzen ari zitzaiola jakitun, egunaren ordu gehienak liburuari eskaini zizkion. Egunerok, jaiki orduko,



▲ BIDEA ELKARREKIN

2011ko ekainean bidearen zati bat elkarrekin egin ahal izan zuten.

▼ KONPOSTELAKO SANTIAGO

Konpostelako Santiagora iritsita, Obradoiroko plazan.



GERTUKOENEN LAGUNTZA

Gertukoengadik jasotako laguntza eskertu nahi izan du Teresak: "Senide eta lagunengadik uneoro jasotako babesak askoz eramangarriago egin zigun gaixotasunaren zama. Eguneroko bisitez gain, denek lagundu zuten: jatekoekin, umeekin, Antxonek behar zuen arretarekin... Eskerrak eman nahi dizkiet guztiei". (Argazkiak: goian eta erdian, Antxon anai-arreba eta gurasoekin; behean Teresa emaztea eta alabekin; hurrengo orrialdean, koadrilako lagunekin).

BRONTZEZKO KANPAI BAT

Adiskide bat bazen, orotan bihozbera, sentimenduzko kontakizunek antzaldatu egin zutena. Garai bateko benetako bidaiariak egin zuen bezala, 2008ko martxoaren 14an bere etxetik irten zen, motxila handia sorbaldan eta Konpostelako Santiagora oinez iritsi bitartean bere buruari amore ez emateko agindua betetzeko asmoz. Inork ezin zezakeen aurreikusi, ezta berak ere, asmo hark ondoren utzi duen arrastoa.

Abentura hartan, Urolako trenaren bihurgune eta bide basatiak gozatu zituen, Deba Garaiko mendien malda motz bezain amaigabean zaildu zen; erregeen buruak ere makurrarazten zituen San Adriango tunela tinko zeharkatu zuen; oin odolduen 30.000 urratsen kalbarioaren froga pasa zuen Arabako Lautadetan; Errioxako mahastien labirintoen enigma amaigabeen erotu gabe onik irtetea lortu zuen; bere bidaiaren amaiera behin eta berriro iragartzen zion mediku frontseari partida irabazi zion, adorea adoretz, maukapean gordetako karta tranpatirik gabe; lestrigoiak, ziklopeak eta Poseidonen haserreak, denak uxatu zituen Gaztelako lautada amaigabean; toki sakratuen merkatariei sosak ukatu zizkien, bere bideari argi gehiago ematen zion edozein koittaduri emateko; haizerik indartsuenekin jostatu zen eta itsasoari zain egonarazi zion; burugogorkeria burugogortasun bihurtu zuen; Galizako baso keltikoez eta gurban ezkutututako pallozez maitemindua zegoela baieztatu zuen, berriro ere; zuhaitzekin hitz egin zuen, oreinek euren sekretuak kontatu zizkieten, txorien abestiak adi entzun zituen, eta bere barneko ahotsak hitz egin zion; existitzen ez den fede baten artalde jendetsuaren ilaratik irten zen —egia esateko, ez zen sekula sartu—; gidatua izatetik gidari izatera pasa zen; eta Santiagon, bere Itacan, bi amets bete zituen, eta beste dimentsioetako amets bati ekin zion.

Bidaia hartatik bueltan, jadanik lagun hura ez zen pertsona bera izan. Besteak beste, esperientzia hark idazle bihurtu zuen eta oraindik ezezaguna zuen patuari aurre egiteko prest jarri zuen. Denoi lehenago edo geroago iristen zaigun patu hori.

Antxon Gonzálezen *El Gran Caminante* maisulana zure eskuetan erortzen bada, errepara ezaiozu ongi, hel ezaiozu tentuz bere edukiari, magia baitu. Bere sorginkeriak eragiten badizu, ez dizu utziko liburua ixten. Orri bat irakurri nahiko duzu eta gero beste bat, eta gero kapitulu bat eta gero beste bat. Lerro batek negarra eragingo dizu eta hurrengoak irribarrea. Soluzioak zeinen sinpleak diren konturatu baino



lehen, bizitzak duen misterioaz hausnartzen korapilatuta topatuko duzu zeure burua, gizaseme bat ezagutuko duzu gordin-gordinean bere buruaren peskizan eta seguru aldi berean zu zeu topatuko duzula nonahi, ordura arte zeure buruaz ez zenekin zerbait berria aurkitzeraino. Behar duzun osagai bakarra sentiberatasun pixka bat da, eta bizitzaren aurrean galderak egitea.

*El Gran Caminante*k badu dohain berezi bat: egiazkoa da, hezur-haragizkoa, eransgarri eta kontserbanterik gabekoa.

Liburuak badu
dohain berezi
bat: egiazkoa da,
hezur-haragizkoa,
kontserbaterik
gabekoa

Bihotzetik idatzita dago, soiltasunez, jadanik galtzeko eta irabaztekorik ez duen gizaseme baten testigantza betirako hortxe utziaz. Ospearen esperotan ez dagoenaren errelatua da eta hori da bere bermerik handiena.

Bagenekien lagun bat genuela ondoan, bagenekien pertsona ona genuela inguruan, bagenekien bilaketan zebilela, bagenekien bideak egitea atsegin genuela, baina ez genekien Kixote eta Sancho Panzaren papera aldi berean antzetzeko gai zenik, ezta Frodo eta Gandalfena ere; ez genekien Herman Hessen Siddarthak anaia bizki bat zuela Zumaian; ez genekien bere inguruak Zolaren tamainako ñabardurekin aztertzeke gai zenik; ez genekien Coen anaiek euren film batean sartuko lituzketen gertaera surrealistik bizi izan zituela... Orain badakigu, eta orain bere hurbilen gaudenok sugar hori beti piztuta mantentzeko obligazioa dugu, gure jokabideekin ez bada ere, bai, behintzat, gure gogo eta oroimenarekin.

Ohikoa izan ohi denez, kanpoko norbaitek konturatu behar izan zuen aurrean genuen harribitxiaz. Lerro hauek balio dezatela José Antonio de la Rierari esker ona agertzeke, berak emandako hauspoaren bitartez Antxonek liburu hau idazteko behar zuen adorea aurkitu baitzuen. Eta batez ere mila esker zuri, Antxon, horren denbora gutxian horren ikaspen sakonak uzteagatik. Jadanik nik ere aurkitu dut nire brontzezko kanpai miragarria, munduko baliorik handiena duena, bestean iritzi eta oniritzien zain egon gabe: liburu bat da eta *El gran caminante* deitzen da.

GOROSTI BODEGA
 ELORRIAGA AUZOA, DEBA, GIPUZKOA
 Tfno: 670408439 Juan M^o Echave
 692605223 Isabel Etxaniz

flysch
 txakolina

Geluriako Txakolina
 DENOMINACION DE ORIGEN



Cure-Txokoa
 aberna



Upela plaza, 4
 20750 Zumaiá
 Tel.: 943 86 09 70

English School **Harvest**

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API
Ibaitin
 gain
 inmobiliaria

Ricardo Azkue
 API 399

Txomin Agirre 4, behea
 tel. 943 862 651
 faxa 943862748

rjazcue@euskalnet.net

ilarzi



Alai auzategia, 2
 Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAJA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 860 760

ITSASKI
 SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotaatuak...

Itzurun Zuhazbidea, 2 behea
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI
ZUMAI



943 862 083

JUARISTI
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
 Eguneko menua
 Jangela klimatizatua

Basod, auzategia, 10 tel. 943 861 853

Xala

Pintxoak eta
 otartekoak



Txomin Agirre kala, 8

KABI Patata Etxezarreta, 15
 943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
 Aluminiozko leihoak ZH-trekin,
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
 tel. 943 862 517

KANTAU
TABERNA

Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatxoak

Kantauri plaza, 4 behea • Tel. 943 575 840

Kresala
 Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869

FINISTERRE

Santiagotik pasa ondoren,
Finisterren amaitzen da
erromesen bidaia.



idazteari ekiten zion. Bazkalondoren, siesta laburra eta berriro lanera. Iluntzean etenaldia, senide eta lagunak joaten baitzitzaizkion bisitan. Baina haiek etxeko atetik atera orduko, berriro liburura, gauerdira arte.

Hil zen egunera arte jarraitu zuen idazten. “Hil baino hamabost egun lehenago esan zidan liburuko kontakizuna Santiagon amaituko zuela, Finisterre iritsi gabe. Nik esan nion pena ematen zidala osorik ez jasotzea. Orduan, amets moduko bat asmatu zuen Finisterrekoa jasotzeko. Sumatzen zuen heriotza gañean zuela”.

Antxon Gonzalez Gabarain aurtengo irailaren 1ean hil zen. Liburua erabat amaitu gabe utzi zuen, baina Antxonek lehendik idatzia zeukan bidaiaren bukaera, Santiagora nola iristen den. Testu hura baliatu dute liburuaren kontakizuna osatzeko.

Ez da gida bat

Egun batean, liburua idazten ari zela, sekulako ezustekoa jaso zuen Antxonek. Rosa Montero idazlearen mezua zuen emailan. Lagun batek eman zion Antxonon berri. Monterok bidearen gida moduko bat egiteko gomendatu zion, baina Antxonek ez zuen hori nahi. “Gida asko daude jadanik”. Bere esperientzia kontatu nahi zuen.

Duela egun batzuk, Teresak berak idatzi zion Monterori: “Gertatutakoa azaldu nion eta jakinarazi nion liburua amaitu dagoela eta argitaratzeko prest. Liburuaren azala eta atal

bat bidali nizkion. Ordubetara erantzun zidan. Taxi batean harrapatu nuela eta hitzik gabe utzi nuela. Facebooken daukan kontuan argitaratu du atal osoa”.

El gran caminante osorik edo zatika irakurtzeko aukera izan dutenentzat esperientzia berezia

izan da. Harridura eragin du. “Antxon beti izan da mutil isila, hitz gutxikoa. Liburuan sentimenduak eta ideiak transmititzeko erakusten duen gaitasuna txunditzailea da. ‘Nondik atera du hau guztia?’, galdetzen du jendeak”. Etxetik irten eta Santiagorainoko bidaia kontatzen du, atal bakoitzeko etapa bat. Gorabeherak, paisaiaren deskribapena, bidaiariekin dituen solasaldiak... Baina barne bidaia bat ere kontatzen digu. Lehen pertso-

nan, barren-barrenetik. Gaixotasunaren aipamen zuzenik ez du egiten, baina lerroartean ageri da haren itzala. Liburuan murgildu ahala, irakurleak ezin du saihestu Antxonon irudia: ordenagailuaren aurrean, gaixotasunaren aurrean makurtu nahi ez, eta bidean begiekin ikusitakoak begiekin idazten... Teresak horrela biribildu du: “Zailtasunen gainetik, aurrera egiten duen pertsona baten historia da”.



ARANAITZ RUBIO APREA

Gaixotasunaren
aipamen zuzenik ez
du egiten liburuan,
baina lerroartean
ageri da haren itzala

URBERU sagardotegia

Elorriaga auzoa - ITZIAR
Tel. 943 199 237

Etxeko
espezialitateak:
haragia eta arrainak
parrillan.



ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

KRISIAREN ERDIAN, ARGI IZPIAK

Krisia gogor ari da eragiten. Gazteak dira kaltetuenak. Baina zurrunbilo eta beldurraren artetik bada argi izpiak erakusten dituenik ere. Kaltetuenentzat aukerak zabaltzen dituena. Zumaiako Soldadura Zentroak, esaterako.

TESTUA: AINARA LOZANO
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA



ERREPORTAJEA

Aukera ona izan da urte mordo batean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) gainditu ez duten 16 eta 18 urte bitarteko gazte askorentzat, eta egungo egoerari aurre eginez ere, emaitza onak ari da izaten. 1988an zabaldu zituen atak eta ordutik mila pertsonak jaso dute prestakuntza bertan. Gainera, Udal Elkarteak brigadak ere sortu ditu eta Udalek orain arte egin dituzten mantentze lanak ari dira egiten orain gutxi arte langabezian zeuden eskualdeko hainbat lagun. Eskolan izan gara ikasleek nola lan egiten duten ikusten eta askorentzat lan munduan sartzeko baliogarria den zentroa ezagutzen.

2000. urtetik soldadura eta galdaragintza bakarrik ematen dituzte, baina aurrez, horiez gain, sukaldaritza, igeltserotza, iturgintza, zurgintza eta beste zenbait lanbide jorratu dituzte. Gaur egun, programa hau (soldadura eta galdaragintza) Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatzen du, Eusko Jaurleritzako Hezkuntza sailaren diru laguntzarekin. Momentu honetan hiru pertsona ari dira lanean Zumaiaiko zentroan: Maribi Ugalde zarauztarra, arduraduna; Joxerra Egiguren azkoitiarra, tutore lanetan eta oinarrizko hezkuntzako irakaslea; eta Juan Mari Garcia zumaiarra, soldadura eta muntaiako eskolak ematen. Ugalde 1988tik dabil bertan lanean eta hasieratik ikusi du Eskolaren eboluzioa. “Hasieran ez genuen ezer. Lokal bat zen. Mankomunitatea ere txikia zen; suhiltzaile boluntario batzuk

eta ezer gutxi gehiago zituen. Udaletxeko teknikari batek ermaten zizkigun kontuak. Ondoren, Udal Elkarteak beste eskuduntza batzuk hartu zituen eta egun gai asko lantzen ditu. Prestakuntza eta enpleguaren barruan, atal bat gara gu”. 1988tik Orion eta Zumaian hainbat lekutan egon ondoren, 2000. urtean etorri ziren Estazioko industrialdera. “24 urte hauetan, 1.000 pertsonak jaso dute prestakuntza”, azaldu du harro Ugaldek. Eta ez da gutxiagorako. Izan ere, titulaziorik gabe eskola uzten zuten 16-18 urte bitarteko gazteei ate bat ireki zitzairen Zentroaren sorrerarekin. Heziketaren bitartez, lanbide baterako sarbidea izateko aukera sortu zitzairen.

Egun, bi urteko lanbide prestakuntzako programa eskaintzen da. Lehenengo ikasturtean, lanbide baten oinarrizko ezagutza eskuratzen dute ikasleek, eta horren osagarri, Zentroak lanerako eta gizarterako prestakuntza eta banakako tutoretza eskaintzen du. Bigarren urtean, aldiz, profil profesionala osatzeko gainerako ezagutzak lantzen dituzte eta DBHko graduatua lortzeko prestaketa egiten dute. “Programa amaitzean, DBHko graduatua lortzeko aukera dute. Horrek bi bide irekitzen dizkie: ikasketak jarraitu nahi dituenen erdi mailako zikloren bat ikastera joan daiteke, edo, bestela, lan egitera”. Eskualdeko lantegietan egiten dituzte praktikak. “Aurten, krisia dela eta, praktikak egin eta gero, enpresan bertan lanean jarraitzeko aukera gutxi izango zutela uste genuen, baina erdia baino gehiago geratu da

GAZTEEI ZUZENDUTA

Ikasketekin arazoak izan dituzten gazteei bigarren aukera eskaintzen die Udal Elkarteak.





ESTAZIOKO INDUSTRIALDEAN

Estazioko industrialdean dauka eskola Udal Elkarteak.

lantokian. Sorpresa ederra izan da!“. Duela hiru urte guztiek lortzen zuten lana inguruko enpresetan: Balenciaga, Lagun-Artea, Mendiarraiz... “Metaleko mugimendu dezente dago eskualdean. Industria indartsua dugu eta han laneratu dira beti”.

Ikasleen eraldaketa

“Zentroa oso euskalduna da. Inguruko ikasleak ditugu. Normalean, atzerritar gehiago izan da horrelako eskolatan, baina gure kasuan, bertakoak gehiago dira. DBHko graduaturik gabe etortzen dira. Eskolan ez dira eroso sentitzen, ikasteko zailtasunak dituzte edo agian, lan praktikoa gusurago hartzen dute. Horrelako ikasleek hemen segituan egiten dute aurrera. Oso garbi dute eskola ez dutela nahi, baina lan bat bai. Gidabaimena ere azkar ateratzen dute”. Atzerritik etortzen direnek zailago izaten dute eta kasu horretan, Gizarte Zerbitzuekin koordinatzen dute horiei eman beharreko laguntza. “Hasieran galduta sentitzen dira, eskola porrota izan balute bezala. Hemen piztu egiten dira eta eraldaketa hori ikustea gozamena da guretzat. Nola etortzen diren eta nola irteten diren ikustea... Munduarekin oso haserre etortzen dira!”.

Maiatz-ekainean ikastaroa amaitzean, matrikulatu baino lehen, gurasoei zentroa erakustea ere garrantzitsua dela dio Ugaldek: “Pixka bat beldurtuta egoten dira gurasoak. ‘Eskola

“Krisia izan arren, erdia baino gehiago geratu da lantokian praktikak egin eta gero”



utzi eta orain zer? Nor joaten da horrelako zentroetara?“. La-saia geratzen dira gunea eta gu geu ezagutzeko”.

Programan 30 ikasle daude: lehenengo mailan 15 ikasle eta bigarrenengoan beste 15. Lanbideko ikastaroak ere ematen dituzte. Horrela, urtean 60 bat pertsona igarotzen dira Zentrotik. Ugalderekin elkarrizketa egiten ari garela, zalaparta entzun dugu. Talde bat gelara sartu da teoriarekin hasteko. Matematikak, gizarte, natur... ikasten dituzte klasean. Gelara joateko aprobetxatu dugu, ikasleak ezagutzeko. Sartu eta Arnaitzek kamera atera eta argazkiak ateratzen haserakoan... sorpresa! “Joe, Joxerra! Abisatu egin behar zenigun doto-



kuttun
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiko plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatekxoa • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel. 943 537 901

Nikol  **Enea**

TABERNA

Amaiko plaza



NOLA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

636 867 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3 blokea tel. 943 861 691



ETXE GINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranitz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoikia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

re, bakeroak jantzita etortzeko!”, azaldu dio Ekain Esnalek, 16 urteko gazteak, irakasleari, eta beste ikaskideen barrea sorrarazi du eta agerian geratu da beraien arteko giro ona. “Polita da ia gaztelania hitz egiten ez duten euskaldunak atzerritarrekin hitz egiten ikustea. Ez dakit nola, baina ederki lortzen dute elkar ulertzea!”, adierazi du Ugaldek atetik ikasleei begira. Ekain Esnal eta bere lagun Eneko Alkorta elkarrizketatzeko tartea ere hartu dugu. Azpeitiarrak dira eta koadrilakoak, gainera. Eskolarekin “nekatu xamar” zedula eta lanbide bat ikasteko gogoz hasi ziren biak Soldadura Zentroa joaten. “Oso gustura gaude, eskolan baino hobeto. Oso ezberdinak dira klaseak”, azaldu du Esnalek. Bertan “motibazio handiagoa” dutela jakinarazi dute bi gazteek.

Tailerera jaitsi gara ondoren. Biltegiaren gordeta dute materiala eta makinekin moztzen, plegatzen, biltzen... aritzen dira ikasleak. Teknikak ikasten dituzte bertan eta horretan zebilela harrapatu dugu Valentyn Molchanovich 16 urteko gaztea. Duela lau urte iritsi zen Ukrainatik Azpeitira eta bigarren urtea du Zumaiako Soldadura Zentroan. Pozik agertu da: “Asko dibertitzen gara klaseetan, baina lan asko egitea ere tokatzen zaigu. Gogor ikasi behar dugu eta”. Tailerrean egotea du gustukoaren, baita matematikako klaseetan ariketak egitea ere. Oraindik ez da irten eskualdeko herrietara baranda bat jartzera edo bestelako lanak egitera, eta gogoia duela adierazi du. “Maria eta Jose eskolaren atzean dagoen baranda egin eta jartzen aritu gara, esaterako. Hogeitabat panel ere egin ditugu Orioko Udalerako. Zarautzen, Gurutze Gorriaren ondoko lur azpiko pasadizoan dagoen baranda berri genuen edo Azken Portu auzoan hesi bat jarri. Getarian ere egin ditugu beste lan batzuk... Mordoa egin dugul”, azaldu du Ugaldek, eta emozioz nabaratu argazkiak erakutsi dizkigu.

Egun, denak gizonetzakoak diren arren, emakumezkoak ere izan dituzte zentroan. “Beti gutxi izan dira, baina neska batzuk eduki ditugu, baita ikastaroak egin dituzten emakume helduak ere. Horiek zailtasun gehiago izan dute lana topatzeko. Lortzen dutenean, beren bizitzan hanka bat asegaratuta dutela sentitzen dut eta poza hartzen dut. Horrekin beste guztia bideratzen joaten da”, nabarmendu du Ugaldek.

Idurre Oñederra, 24 urte eta Aizarnazabalgoa, Zumaiako zentrotik pasatako emakumeetako bat da. 2004-2006 bitartean egin zituen ikasketak bertan eta ondoren Zestoan dagoen Forjas de Iraeta enpresan kalitatea kontrolatzeko langile bat behar zutela eta, praktikak egiten hasi zen. Bertan jarraitzen du lanean. Sei urte igaro dira dagoeneko. “Esperientzia polita izan zen Soldadura Zentrotik pasatzea eta lanean soldatzen ibili ez banaiz ere, gogoan ditut tailerrean ibiltzen ginen momentuak”. Lanean gustura dabilela azaldu digu.



Maribi Ugalde:
“24 urte hauetan
mila lagunek jaso
dute prestakuntza
gure eskolan”

Brigadan lanean
Uztailean martxan jarri zuen Udal Elkarteak ekimen berri bat 30 langabetu kontratatuzko. Horrela, euskara, pintura, soldadura eta lorezaintzarako brigadak sortu dira Mankomunitateak eta Zarautz, Zumaia, Orio, Getaria eta Aiako udalek finantzaturako Lanera Kontratazioak programaren baitan. Aurreko urteetan INEMen eta Lanbideren diru laguntza (% 70) jaso du Mankomunitateak, baina aurtengoan, murrizketak direla eta, ez du babesik izan. Hala ere, eskualdeko administrazioek esfortzu ekonomikoa egitea erabaki dute eta 450.000 euro bideratu dituzte ekimen hau aurrera ateratzeko. Azaroaren 5ean jarri zen martxan soldadurako brigada. “Udalek egin ezin dituzten lan txikiak, mantentze lanak egitea da bere betebeharra”, jakinarazi du Ugaldek. Elkarrizketak egin zituzten langileak aukeratzeko eta eskualdeko zortzi pertsona arituko dira bertan lanean, herrietan hainbat konponketa eginez. Ion Duran zumaiarra da horietako bat. 29 urte ditu eta 17 urterekin soldadurako ikastaroa egin zuen Zumaiako Eskolan. Bere lanbidea “oso gustuko” duela adierazi du. TS Fundiciones (Arroa Behea) eta Domusan (Errezil) enpresetan aritu ondoren, langabezian zegoela, brigadan lan egiteko hartu dute. Sei hilabetez arituko da herrietako mantentze lanak egiten. Garbigunerako kontainerra egiten ari zela hitz egin du gurekin: “Oso aukera ona da guretzat brigadarena. Batez ere enpresak ixten eta jendea kalera botatzen ari diren garai honetan. Material guztia, gainera, berria jarri digute eta tratua ere oso ona ari da izaten”. Laster hainbat herritan izango dira barandak jartzen eta bestelako mantentze lanak egiten. “Gogoia dut kalera irten eta herrietan barandak hobetzen edo lanean aritzeko”. ■

La Prima Vera
pizzeria



Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

RUBIO Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERA,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

SESMA
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesma.com
josebasesma14@gmail.com

Talajaia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

TALAI-PE
jatetxea-erretegia



Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Tapaia
Taberna



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA



Izstarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondok (Modillo)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardok aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905

**TXORTENA
JATETXEA**

Eguneko menua, Asteburukoa,
Parrilla, Wifi gunea,
Plater konbinatuak,
Kazueltak, Errazioak

Oikiako plaza 24.
Tel. 943 865 315
OIKIA

Txingurri
loradenda



Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA



Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

UPELA PARABOTIKA
BELARDENDA

✓ Sendagai naturalak.
✓ Osteopatia eta
masajeak.
✓ Naturista, dietetika
eta elikadura.



Upela plaza, 9
643537911
upelabelardenda@hotmail.com

Urola 2000, s.l.
Aroztegia

*Erakuntzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo, tarima eta pertsianak
*Armairu enpokatuen aurrealdeak
*Aroztegi metalikoak

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323

Xanti
Xanti Osa
Arantxa Azkue



Alteariak S.L.

Amalako plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekook
• oilasko erreak

Upela Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAI A
AUTO-ESKOLA



• Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
• Praktika eta azterketak Azpeltian
• GURE HELBURUA:
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro
Gerente

Santixo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiamotor@telefonica.net



Euskaraz bizi nahi dut

Hainbat ekimen egin ziren Euskararen Astearen harira. Besteak beste, argazki bilduma ederra osatu zen kalean bildutako koadrilekin.



Lagerström eta Altzibar gogoan

Azken asteotan albiste tristeak izan ditugu kultura munduan: Bertil Lagerström artista suediarra eta Jontxu Altzibar aktorea hil dira.

Jontxu Altzibar



Bertil Lagerström



Xalbadorri buruzko dokumentala

Xalbador bertsolariari buruzko dokumentala ari da lantzen Eneko Dorronsoro. Aurrerapena jarri du sarean.



Urolako trenaren irudiak

Urolako trenaren irudiak ikus daitezke sarera igotako bideo batean.

Gabonetako Karpia

Abenduaren

21etik
urtarrilaren

6ra

Beheko plazan

Santo Tomas eguneko jaialdia, Gabonetako haur parkea: Txiki txokoa zaindarekin, puzgarriak, Play Station, zezen mekanikoak, jokoak... Kontzertuak, Karaoke lehiaketa, dantza lehiaketa, eta Gabonetako saltokia Zumaiako denden eskaintza bereziekin!!



Zumaiako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



RURAL
KUTXA



Zumaiako Udala



6 gune sortu dira:

Puntanueta
Alai auzoa
Poligonoa
Oikia
Amaia plaza
Parol bidea

Egin konposta elkarlanean, auzolanean

Dagoeneko

34 familia gara.

Zu zergatik ez?

Oraindik baduzu aukera!

Informazio gehiago: auzokonposta@wordpress.com • 616 226 050

ABENDUA-URTARRILA

DEIALDIAK

Gabonetako XIII. Erakusleio lehiaketa

Informazioa, Turismo bulegoan 943-14 33 96.

Abenduaren 10etik 16ra

Elkartasun Topaketak 2012

ERAKUSKETAK

Abenduaren 18tik aurrera:

AMIGOS DE LOS CAMINOS DE SANTIAGO elkartearen erakusketa.

Abenduak 18tik urtarrilak

8ra: Azterkosta erakusketa Algorri Interpretazio zentroan.

ABENDUA

Osteguna, 13

22:00etan Aita Marin, zine forum: "Terraferma" (Emanuele Criales).

Ostirala, 14

19:00tan, Alondegian, GIZALDE Gipuzkoako Boluntariotzaren eskutik hitzaldia: "Boluntarioak, gaur egungo egoera eta erronkak".

19:30ean Foronda Kultur Etxean, Gune elkartearen meditazio saioa

22:00etan Aita Marin, antzerkia: "Goenkale".

Larunbata, 15

19:00etan Alondegia Kultur Etxean, liburu aurkezpena: "El Gran Caminante" Antxon Gonzalez Gabarain.

Igandea, 16

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia BEHIBI'S taldearen "MURen bidaia".

Asteazkena, 19

18:30ean Aita Marin, Zumaiaiko Musika Eskolako Gabonetako entzunaldiak.

Abenduak 21etik hasita

Gabonetako Karpa. Programazio berezia: ludoteka, jolasak, musika... (ikusi egitaraua).

Ostirala, 21

21:00etan Alondegia Kultur Etxean, Gabon koruaren entsegu orokorra.

Larunbata, 22

19:00etan Maria eta Jose aretoan, Zumaiaiko Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Gonbidatua, Astindu dantza elkarte.

22:00etan Aita Mari zineman bertsolari gazteen saioa, Zumaiaiko bertso eskolak antolatuta.

Astelehena, 24

9:30ean Lubaki kiroldegian, areto futbol txapelketa.

Eguerdia bitartean, "Niño Jesusen Eskean".

12:30ean Institutu parean hasita, "Olentzerorekin kantuan".

15:30ean Gabon Koruaren saioa kalez kale.

17:00etan Aita Mari aretoan, Gabon Abestien lehiaketa Erkibe kultur elkarteak antolatuta.

18:30ean Eusebio Gurrutxaga plazan, Jaiotza ikuskizuna.

Asteazkena, 26

Goizean zehar, Algorri Interpretazio Zentroan Gabonetako tailerra umeentzat.

Osteguna, 27

18:00etan Eusebio Gurrutxaga plazako zaharren egoitzan Xake txapelketa.

22:00etan Aita Marin, zine forum: "El Skylab" (Julie Delfy).

Ostirala, 28

21:00etan Behoko Plaza jatetxean, bertso afaria, Zumaiaiko bertso eskolak antolatuta.

22:00etan Aita Marin, antzerkia: "Cotillas".

Astelehena, 31

12:15ean San Silbestre III. Biko lasterketa mistoa.

URTARRILA

Ostirala, 4

18:30ean Errege Magoentzat eskutitzak jasotzea.

Larunbata, 5

18:00etan hasita, Errege Zamalkada.

Osteguna, 10

22:00etan Aita Marin, zine forum: "Blancanieves"

Ostirala, 18

Alondegia Kultur Etxeko OXFORD aretoan, antzerkia: Patxi Santamaria "AKTIBO TOXIKOA" antzezlanean.

Igandea, 20

12:00etan Aita Mari antzokian, haur antzerkia, TXALO taldearen "Jon Bildurgabea".

Osteguna, 24

22:00etan Aita Marin, zine forum: "Elefante blanco"



MUREN BIDAIA

Abenduaren 16, igandea

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia BEHIBI'S taldearen "MURen bidaia".

Zumaia optika



Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

Zumaia Hotela



Jatetxea
Kafetegia

Aial auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

TXALAPARTA
OPARIAK

Angelu Soraza, 2
20750 ZUMAYA
(Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa. 943 130 637

Jokin **GIJARRO**

Platanito gorria

Doinua: "Joana Bixenta Olabe"

**1.**

Ez asiarra, ez kanariarra
gorri-gorria eta zumaiarra
izena izango du Telmo Deun
ta abizenak berriz hirurehun
jarri arreta
dena kontatzera noa eta
zertaz nabilen behar konkreta.

2.

Ekainetikan iraileraino
izan eguzki edo izan laino
Telmo Deun estropadan dihoala
Pasai, Zumaia o Getxo dala
partaide zera,
dena euro batzuen trukera
irits zaitezke hori lortzera.

3.

Jarri izena kanpaina dago
ea joaten den ondo, oparo
berrogeita hamar euroren truke
zure izena jarriko dute
platanitoan,
beste herritar denen ondoan
eta gainera urte askoan.

4.

Izan herriko, izan kanpoko
ez dadila hori zuen oztopo
eskerrik asko alde z aurretik
diot traineruaren barrutik
gure partea,
estropadetan lan egitea
eskertu nahirik borondatea.





NESPRESSO
kafeterak

50 OPARIA
€ kafetan

NESPRESSO
"PIXIE"

149€

NESPRESSO
"U"

139€

OREGON
BAR 386

39€



SCHNEIDER TABLET-A
Pandora 7"

89€

Pandora 9"

135€



ROOMBA 521

309€

SCHNEIDER
MAXICUISINETTE
Sukaldeko robota

69€



LG M2252G
22" LED

199€



SAMSUNG DV90
Argazki kamera
• 16 Mp
• Zoom x5

2 pantaila

99€



600 Hz
42"

PANASONIC
TXP42X50
42" PLASMA

399€



**ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com

Jaso Ezazu
2013ko egutegia
dendan



Hobeto sentituko zara!

Odontologia Orokorra
Ortodontzia
Implanteak
Periodontzia
Protesia

Kol. zk. 829
Harategiko kalea 1, behea-A
(Ardantzabidetik Sartuta 4. Solairua)

Tel. 943860247
www.iplazaola.net



**BANCO
MEDIOLANUM**
MEDIOLANUM BANKING GROUP

Banku hobea

Jar zaitez gure kontsultariarekin harremanetan

Telf. 653.019.681
emayasori@bancomediolanum.es
www.bancomediolanum.es

Bertendona Kalea 6
Pk 48001, Bilbo
Telf. 944 790 022